



ENPRESAREN EKONOMIA ECONOMÍA DE LA EMPRESA

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar duzu. Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

A AUKERA

A1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Irakur ezazu ondoko testua eta erantzun galderei

Euskadin, emakumeen soldata gizonezkoena baino % 28 txikiagoa da

Emakumeek Euskadin gizonezkoek baino % 28,4 gutxiago irabazten dute, Euskadiko CESeK (Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak) bere azken buletinean salatu duenez. Alde hori emakumeek lan-merkatuan jasaten duten **lan-diskriminazio** zabalaren alderdietariko bat besterik ez da.

Lan-diskriminazioa adierazten duen beste elementu bat **lan-harremanen behin-behinekotasuna** edo kontratu falta da. Euskadiko CESeN datuek erakusten dute emakumeen behin-behinekotasunaren tasa % 22,6 dela, gizonezkoena baino lau puntu handiagoa. Ezegonkortasuna orokorra da 16 eta 24 urte bitarteko emakumeen kasuan, % 62,4k ez baitute **kontratu finkorik**; gizonezkoetan, berriz, % 59,3 da portzentajea.

Emakumeen langabezia da azken urteotan bilakaerarik onena izan duen adierazleetako bat, nahiz eta tasa, oraindik ere, gizonezkoena baino handiagoa den. Hobekuntza nabarmeneko urteak izan dira, eta Euskadi Europako portzentajerik txikienetako bat izatera iritsi da, baina, krisia piztu denetik, emakumeen langabezia azkarrago hazten ari da. CESeN ustez, emakumezkoen enpleguaren aurrerakada «ilundu» egiten du **jarduera-tasa** txikiak: % 46, gizonezkoena baino 18 puntu txikiagoa.

CESe erakundearen argitalpenak, halaber, **I+G+B sektorean** nabari den diskriminazioaren egoera aztertu du, sektore horretan emakumeak ozta-ozta iristen baitira heren bat izatera ingeniartzako eta teknologiko ikertzaileen artean.

- a) Azaldu eta iruzkindu testuan azpimarratuta agertzen diren hitzen esanahia.
- b) Testuan azaltzen dena kontuan izanda, adierazi zer elementuk erakusten duten emakumeen lan-diskriminazioa.

A2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Koadro honetan enpresa batek ebaluatu nahi dituen hiru inbertsio-egitasmori buruzko datuak agertzen zaizkigu:

Inbertsio-egitasmoa	Hasierako despoltsapena	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	5. urtea
Alpha	10.000€	0€	0€	6.000€	6.000€	8.000€
Beta	20.000€	3.000€	4.000€	5.000€	6.000€	8.000€
Gamma	16.000€	4.000€	5.000€	8.000€	3.000€	3.000€



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK

2010ko EKAINA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

ENPRESAREN EKONOMIA

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

Balio eguneratu garbiaren irizpidea erabilita, zein da hiru aukera horietatik interesgarriena? Zergatik? Kontuan izan egitasmoarekin jarraitzeko % 2ko errentagarritasuna finkatu dela inflaziorik gabe eta urteko inflazio-tasa metatua % 3 dela.

Zein izango litzateke aukerarik onena, berreskuratze-epearen metodoa (*pay-back*) erabiliko balitz? Zer hutsune ditu azken metodo horrek?

A3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

TEKIA enpresak 300 unitate kontsumitzen ditu hilean (egunero kopuru bera), eta 50 unitateko segurtasun-stock bat du. Hornitzeko epea 10 egun da, eta eskaera-bolumena bi hilabeteko kontsumoaren berdina da (hilabete = 30 egun). Kalkula ezazu:

- Eskaera-puntua
- Biltegiko stockaren batez besteko maila
- Errotazio-indizea
- Egin ezazu irudikapen grafikoa
- Garraio-greba dela eta, bigarren eskaera behar baino 3 egun beranduago iritsi da. Zer egoeratan dago enpresa? Bezeroak hornitzeko gai izango da?
- Eta eskaera behar baino 10 egun beranduago iritsiko balitz? Zer ondorio izango lirateke enpresarentzat?
- Irudika ezazu lehenagoko grafikoa.

A4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu

Galtzak ekoizten dituen enpresa batek jakin nahi du zein den bere errentagarritasun-atalasea. Makinerian, eraikinetan eta eskulanean urteko 120.000 €-ko kostua du, eta argindar- eta ur-hornidurengatik eta aseguratuan urtean 17.000 € ordaindu behar ditu. Galtza pare bakoitza ekoizteko, 1,2 metro karratu oihal behar du, eta metro bat oihalek 3,2 €-ko kostua du. Hariak, botoiek, etiketek eta poltsaratzeak euro bateko kostua du unitateko. Galtza pare bakoitzaren salneurria 15 € bada:

- Zenbat galtza pare saldu behar ditu dirurik ez irabazteko ez galtzeko?
- Zenbat galtza pare saldu behar ditu 150.000 €-ko irabaziak lortzeko?

A5. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1 puntu.

Eman ezazu hitz hauen esanahia:

- Ekoizpen-prozesua.
- Merkatu-segmentua.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK

2010ko EKAINA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

ENPRESAREN EKONOMIA

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

B AUKERA

B1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

KORTA, S.A. enpresak bizikletak ekoizten ditu. Iaz 25.000 € ordaindu zituen lehengaiak erosteko. Erositako lehengai guztiak kontsumitu zituen, eta biltegi batez beste 2.500 €-ko stocka izan zuen.

Urte horretan lortutako salmentak 45.000 €-koak (merkatu-prezioan) izan ziren. Bezeroen batez besteko zorra, berriz, 12.000 €-koa izan zen.

Beste datu esanguratsu batzuk:

- Urte horretan izandako ekoizpen-kostu osoa: 30.000€
- Urteko salmentak 34.000 €-koak (kostu-prezioan) izan ziren
- Enpresak, batez beste, 10 egun behar izan zuen hornitzaileei ordaintzeko.
- Biltegiko bizikleten batez besteko balioa 2.800 € zen.
- Ekoizpen-bidean zeuden produktuen batez besteko balioa 2.900 € izan zen..

Kalkula itzazu enpresaren heltze-aro ekonomiko eta finantzarioa, eta azaldu bi kontzeptu horien esanahia.

B2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Herriko eraikuntza-enpresa bateko 30 langilek, egunean 9 ordu lan eginda, 60 egun behar izan dituzte 6.000 metro kubikoko harresi bat eraikitzeko. Beste herrialde bateko enpresa batek 40 langile erabili ditu harresi berdina eraikitzeko 40 egunean, 8 orduko lanaldietan.

- a) Kalkula ezazu enpresa bakoitzaren lanorduko produktibitatea.
- b) Egin ezazu produktibitateen konparazioa ehunekotan (%).

B3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu

CORTI, S.A. artilezko jertseak ekoizten dituen enpresa bat da. Abenduaren 31n ondare elementuak ditu:

- Ehuntzeko makinak: 54.750 €
- Eskudirua kutxan: 4.500 €
- Makinak 3 hilabetera erosteagatik ordaindu behar dituen fakturak: 43.800 €
- Biltegi dituen jertseak: 19.500 €
- Lantegia 288.300 €-an baloratua dago, horietatik 108.000 € lurraren balioari dagozkie
- Gizarte Segurantzari zor diona: 15.000 €
- Saldoa kontu korranteetan, zenbait bankutan: 36.000 €
- Alarma bat ipintzeagatik 780 € zor du
- Biltegi duen artilearen balioa 4.500 €-an baloratua dago



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK

2010ko EKAINA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2010

ENPRESAREN EKONOMIA

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- Bezeroei kobratzeko dituen fakturak: 30.750 €
- Artilearen hornitzaileei ordaintzeko dituen truke-letrak: 32.250 €
- Banku batek emandako mailegua, 3 urtera itzultzekoa: 105.000 €
- Ogasunari zor dion BEZa: 68.550 €
- Lege-erreserbak: 32.250 €
- Artilearen hornitzaileei ordaintzeko dituen fakturak: 17.700 €
- Bezeroek onartutako truke-letrak 37.580 €
- Bazkideek egindako ekarpenak ????

Datu horiek kontuan izanik:

- a) Osatu enpresaren egoera-balantzea, ondare-masatan sailkaturik.
- b) Kalkulatu laneko kapitala (maniobra-fondoa), irudikatu grafikoki eta adierazi emaitzaren esanahia.
- c) Azter ezazu enpresaren egoera finantzarioa ratio hauek erabiliz:
 - Diruzaintza edo altxortegia
 - Likidezia
 - Bermea
 - Zorpetze osoa
 - Ibilgetua

B4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1,5 puntu

Irakur ezazu testu hau, eta azaldu ezazu testuan azpimarratuta agertzen diren hitzen esanahia.

“Hasierako inbertsioa 200 milioi eurokoa izango da, eta 1.200 lanpostu sortuko ditu, haietatik 500 zuzenekoak, eta beste guztiak zeharkakoak”.